

astola

ikerketa eta historia


DURANGALDEKO URTEKARIA

9.zk 2015 • 5e



PLATERO Y TU
CORREOS

Elorrio, Gerrako frontea

 Jon Irazabal  Artxiboak

Gatazka baten hasiera

Francoren altxamenduaren ondoren, 1936ko uztailaren 18an, Elorrio alde errepublikarrean geratu zen. Beste herri batzuetan bezala, Elorrioko Defentsa Batzordea eratu zen, Julián Ariño alkate zela eta Errepublikarekin leial ziren alderdietako kideen laguntzarekin. Batzorde hori arduratu zen herriko ordenari eta segurtasunari eustez, errepublikako erregimenaren kontrako elementuak neutralizatzeko eta, 1936ko udan, Gipuzkoa erori ondoren, heldu zen errefuxiatu uholdeari eman beharreko hornidura eta gizarte laguntza bermatzeaz. Urte horretako abendurako 2.131 errefuxiatu jaso zituen eta, ondorioz, herria 5.835 biztanlera heldu zen. Biztanle berrien artean, gerrak eztanda egin zuenean Elorrioko bainu-etxeetan oporretan zeuden aristokraziako zenbait kide zegoen.

Batzordeak, Errepublikaren aurkako 107 pertsona atxilotzeko agindua eman zuen. Horietako batzuk euren etxeetan atxilotuta geratu ziren, eta beste

batzuk Bilbora bidali zituzten. Horietatik 82 hiriburuko presondegietara sartu zituzten. Talde bati baldintzapeko askatasuna eman zitzaion, aldian behin agintarien aurrean aurkezteko beharrarekin eta Elorriora hurbiltzeko berariazko debekuekin.

Errepublikaren aldeko indarrek ez zieten oposizio handirik aurkeztu Gipuzkoan Mola jeneralaren indarrei. Irailaren 21ean altxatutakoek Elgoibar hartu zuten, eta 22an Bergara. 25ean Eibarko sektorea eraso zuten, baina eutsi egin zitzaion. Irailaren 26an Mola jeneralak Arrasate hartu zuen, eta 28an Kalamua eta Arrate mendiak. Urriaren 4an erreketeez Intxorta eraso zuten, eta Gaztelumendi eta beste posizio batzuk hartu zituzten. Hurrengo egunean, gudariek erasotu eta aurreko egunean Intxortan galdutako posizioak berreskuratu zituzten. Negua gertu zegoenez eta bere armadaren egoera ikusita, Emilio Mola jeneralak erasoak geratu behar izan zituen, eta Durangalde inguruan frontea egonkortuta geratu zen.

 Intxortako Frontea. Erreketeez gazteak lubakian. Atzean, Udalatx mendia. *Victor Sierra-Sesumaga artxiboa.*



Negua zain

1936ko urriaren 7an Eusko Jaurlaritza eratu zen, eta urriaren 31n Elorrio eta frontetik gertu zeuden beste herri batzuk gerra gune izendatu eta horietarako Jaurlaritzaren ordezkariak izendatu zituen.

Elorrioren agintaritza militarra Eustasio Amilibia *Ta-txoren* esku zegoen. Bere koartel nagusia hiribildu horretan jarri zuen, Arrasate erori ondoren. Ideologiaz erradikala zenez, gatazka handiak izan zituen Elorrioko gizartearekin eta errealitatearekin, Julian Ariño bertako alkate moderatuarekin batez ere. “Sediciente nacionalista” esaten zion.

Gobernazio Sailburu zen Telesforo Monzonek esku hartu behar izan zuen, eta ordena publikoko arduradun zen Pedro Gallastegirekin batera Elorriora joan zen. Gallastegik indarrak gabe utzi zituen Amilibiak

hartutako erabaki batzuk, karlistei isunak jartzea, besteak beste, eta horrez gain, beste neurri batzuen artean, apaizei sotana jantzeko baimena eman zien. Gerra agintaritzaren eta agintaritza zibilaren arteko frikzioek gora egin zuten eta, horrela, Amilibiak Elorrioko alkatea eta gudariak atxilotzeaz mehatxatu zuen. Egoera ikusita, Ariño alkateak amore eman behar izan zuen, eta, horrela, agintea Tatxo Amilibiaren esku geratu zen. Hark jauregiak eta komentuek errequisatu zituen, bertan indar armatuak egon zitezten. Horrela, Euskadiko gerra komandantzia Casajarako markesaren Urkizu jauregian instalatu zen; intendentzia Tolako markesaren jauregian, eta Gurutze Gorriaren ospitalea Larizko kondearen jauregian. Urriaren 3an Elorrioko monja dominikarren Santa Ana komentua koartel gisa egokitu zen. Asuntzionistak euren komentutik kanporatu eta marianistenera eraman zituzten. Urriaren 12an Elorrioko marianistek euren nobiziatua utzi behar izan zuten. Gudariak hartu zuten, eta



Jose Antonio Agirre Lehendakaria Elorrioko plazan.

Eustasio Amilibiaren aginduei jarraituz, miliziarren esku utzi zen. Marianistak eta asuntzionistak Modeten etxean instalatu ziren, bertatik Bilbora joan ziren, eta handik Frantziara. Eliz-parrokia ere hartu zuten, eta bertan egon zen Azaña batailoia 1936ko abenduaren 3tik 23ra. Epealdi horretan, elizako funtzioak Elorrioko Santa Anako komentuan ospatu ziren.

Hurrengo hilabeteetan gudarien agintarien eta Amilibiaren arteko gatazkak eta frikzioak etengabeak izan ziren, arrazoi bat edo beste zela eta. Horietako bat epaiketarik gabeko heriotzak izan ziren. Azaroaren 6an euren etxeetan atxilotuta zeuden Dionisio Isasmendi Echevarria, Juan de Barandica y Llano, Jose Asporosa Olavezar, Daniel Zubia Ereñaga, eta Rafael Castillo fusilatu zituzten Abadiñon. Lehenengo biak, Dionisio eta Juan, udal epaile gisa aritutakoak ziren, eta beste biak, Jose eta Daniel, Elorrioko Zirkulu Tradizionalistako presidente izandakoak ziren. Urtarrilaren 5ean, Francisco Gazetabeitia Zenitagoia atxilotu zuten Elorrion eta Casajarako markesaren jauregira eraman zuten. Bertan zegoen herriko atxiloketa eta galdeketa gunea. Hurrengo egunean jauregiko habe batetik zintzilik agertu zen.

Behin eta berriro adierazi da sektore horretan gerra ia erabat geldiki egon zela 1936ko urritik 1937ko martxoaren 31ra arte, baina hori esatea askotxo esatea izan daiteke. Asko izan ziren 1937ko lehenengo hilabeteetan bi aldeetako borrokalariak egindako kontraerasoak eta sarrerak, eta ohikoak izan ziren, baita ere, artilleriaren erasoak. Horiek hainbat hildako eragin zituzten: azaroan Agustina eta Leonardo Ajuria hil ziren; 1937ko otsailaren 6an Gipuzkoako kanoien tiroak Elorriora heldu ziren, eta Rufina Azkarretazabal hil zuten; martxoaren 15ean Francisco Maria Gongeta hil zen.




✿ Eustasio Amilibia "Tatxo". Elorrion, 1937an.
Gerediaga Elkarte

1937ko otsailaren 27an Eusko Gudarosteko agintariek oso albiste txarra jaso zuten. Elorrion jaiotako Alejandro Goicoechea Omar kapitainak, Bizkaiko defentsen arduradunak eta, ondorioz, lurraldea gotortzeko lanen ardura zuenak, errebeldeen aldera egin zuen ihes Bentabarritik (Kanpazar). Errebeldeek altxor preziatua lortu zuten, Bizkaiko defentsa sistema biltzen zuten 32 orri.

Alderdi errebeldeak ere albiste txarra jaso zuen. 1937ko martxoaren 17an, Elorrioko erreketearen afiliazio fitxak jasotzen zituen dokumentazioa aurkitu zen, Durangon errekiatutako lonja batean. Talde horretako 27 kideak era enbrionarioan antolatuta zeuden, Antonio Basterrechearen eta Jose Asporosaren aginduetara. Agintari errepublikarrek taldeko kide gehienak atxilotu zituzten, baina apirilaren 19rako ezarritako epaiketa ez zen inoiz egin.

1937ko martxoaren 31: erasoaldi orokorra eta Elorrioren bonbardaketa

Martxoaren 2an, Pablo Beldarrain buru zuen Martiartu batailoia arduratu zen Intxorta sektoreaz. Alberto Montaud teniente koronelak, Eusko Gudarosteko Estatu Nagusiko buruak Beldarrainen iradokizunak onartu eta Kirikiño batailoia sektore horretara bidali zuen. Horrela, Intxorta Martiartu batailoia esku geratu zen, Elgeta eta Gaztelumendi artean. Halaber, trintxerak ere aldatu zituen, kebratuak eginez, posizioak ezkutatu zituen, hegazkinetatik babesteko babeslekuak eraiki zituen... eta denek aurreikusten zuten erasoaldiari itxaroteari ekin zion. Nazionalen erasoaldiaren zain zegoen bitartean, Itxasalde batailoia Elorriora joan zen, eta herri horretako Sortzez Garbiaren eliza kuartel gisa egokitu zuen. Martxoaren 19an, Elorrioko eta Aramaioko sektoreko behategiak,




aurreikusi gabeko hiru tren Arrasatera heltzen ikusi zituela jakinarazi zuen. Albiste hori ezagutu eta gero, zenbait batailoik sektore horretako posizioak indartu zituzten, eta Karl Liebnecht batailoiko hiru konpainia Bilbotik Elorriora eraman zituzten.

Martxoaren 31n, Italiako Aviazione Legionaria izenekoaren 213. eskoadrilak, Vittorio Cannaviello kapitainaren agindupean, Soriatik 214. eskoadrilarekin batera hegan egin ondoren, Elorrio bonbardatu zuen, 50 kiloko 18 bonba jaurtiz. Bonbardaketa burutzeko, Durangotik Elorriora eta ondoren Kanpazarrera doan errepidea hartu zuten ardatz gisa, eta baita Berriotxoa kalea ere. Bonbek, beste batzuen artean, Santa Anako nobiziatua, Greavesen etxea, La Paz ostatua eta Berriotxoa kaleko beste leku batzuk harrapatu zituzten, eta baita Kurutziagako Aldatzekua jauregiaren ingurunea eta Ondozorrotz baserrietxea ere. Bonbardaketak zazpi hildako eragin zituen, gutxienez: Gregorio Elcoro Aguinagalde, Agueda Lejarzegi Ochandiano, sor Estefania Lizarza Labayen, Gregorio Marcoida Loiti, Juana Ostolaza Orbea, Gregoria Aramburu Arieta-Araunabeña eta Pascual Fernandez.

591 Bombardement Elorrio
21/3/37

- ✶ Elorrio, 1937. Sortzez Garbiaren elizako koruazpian prestatutako babeslekuak. *Luis Madina artxiboa.*
- ✶ Elorrio, 1937ko martxoaren 31. Herria bonbardatzen. *Ufficio Storico Aeronautica Militare Italiana.*





Intxortaren erorketa. Durangaldearen gainbehera

Martxoaren 31n Otxandioko sektorean hasitako erasoaldi faxistak Urkiolarantz eta Saibigain mendirantz egin zuen aurrera. Apirilaren 20an, euri asko egin zuen astearen ondoren, Bergarako eta Arrasateko sektorerara joan zen. Nafarroako IV. Brigadak, Camilo Alonso Vega koronelaren aginduetara, Intxortak eraso zituen. Sektore horretako defentsaren pisua Pablo Beldarrain komandanteak zuzendutako Martiartu batailoiairen eskuetan geratu zen. Eraso nagusia, errepublikarren lerroetatik hirurehun metrotara zeuden Asentzioko baselizako trintxeretatik egin zen. Beste talde batek ezkerretik eraso zuen, Asensiomendi mendiaren iparraldeko hegaletik, Ubera aldetik, Uriaga eta Ugao baserrietatik, Intxorta txiki eta Elgeta mendean hartzeko asmoz. Eskuinaldeko posizioak

ere eraso zituzten, Elizmenditik etorrira, Gazteluko trokatik eta Zabaletako baserrietatik. Kirikiño batailoiak ezkerreko erasoaldiari egin zion aurre, eta Juventudes Socialistaseko 5 UHP batailoiak eskumakoari. Borrokak gauera arte iraun zuen. Bi aldeek hildako eta zauritu asko izan zituzten.

Ordu batzuk lehenago, I. brigadak, Octubre batailoiak defendatutako Tellamendiko posizioen aurkako eraso hasi zuen Otxandiotik. Borrokaren hasieran, artilleriaren eta hegazkinen bonbardaketa konbinatuak, Murugain galdu ondoren egindako trintxera ahulak desegin zituen. Sicilia nº 7 batailoiairen erasoari aurre egin zitzaion. Eguerdi inguruan, artilleriaren bonbardaketa berri baten eta ordura arte borrokatu barik egondako erreketean



🚫 Elgeta, 1937ko apirilaren 23. Herria bonbardatzen. *Ufficio Storico Aeronautica Militare Italiana.*


erasoaren ondoren, Meabe/Octubre 7. batailoiak Tellamendiko gailurra utzi behar izan zuten. Orduan, miliziarrek, gertatzen ari zena aurreikusita Karraskainen prestatutako bigarren lerroa atzeratu behar izan ziren. Posizio horietan, Nafarroako I. Brigadako erreketean erasoer eutsi ahal izan zieten. Eguna oso gogorra izan zen euskal batailoientzat, ehun hildako baino gehiago izan zituzten eta. Nafarroako IV. Brigadari dagokionez, ofizialen artean 24 baja baino gehiago izan zituen, eta troparen artean 303, horietako 45 hildakoak.

Apirilaren 21a argitu zenean erreketek ez zuten eraso egin. Indar errepublikarrak Tellamendi berreskuratzen ahalegindu ziren, baina atzera bota zituzten, Beldarrainen iritziz, hegazkin nazionalen etengabeko

erasoen ondorioz. Ekintza horretan, Memaia eta Udala mendiek bat egiten duten inguruan, Olazubietako igarobidean, defentsa sistema ezartzen eman zitekeen denbora galdu zen.

Apirilaren 22a ere lasaia izan zen Intxortan. Hala ere, eguna oso latza izan zen Karraskainen. García Valiño karlistak eraso egin eta Karraskaineko posizioak eskuratu zituen, nolabaiteko erresistentzia jasan ondoren. Erreketek ezin izan zuten Besaide ingurutik aurrera egin. Olazubietako igarobidearen egitura zela eta, leku hori interes militar handiko gunea zen. Pozutxuetako irtenuneez, erasotzailea gerarazteko baldintza egokiak ematen zituzten. Baina agintari frankistek ere bazekiten hori, eta aireko armak etengabe erabili zituzten egun osoan.



 Intxorta mendia 1937. Sabino Arana Fundazioa.

Udala, Isaac Puente eta Malatesta batailoiek defendatzen zuten, biek ere CNT-koak, baina haien defentsak Aramaioa eta Arrasatera zuzenduta zeuden, eta ez Besaidera eta Olazubietara. Hiru egunez armada frankistaren erasoei aurre egin ondoren baja asko zituzten. Bonbardaketen, etsaia erretagoardiatik gero eta hurbilago egotearen, eta hegazkinik ez izatearen, ondorioz, Isaac Puenteko, Malatestako eta beste unitate militar batzuetako miliziarrek beharrezkoa zen lasaitasuna galdu zuten. Gaua sartzean, soldadu haiek euren posizioak utzi eta Elorriorantz abiatu ziren, García Valiñoren indarrei Intxortak inguratzeko bidea zabalduz. Posizioak bertan behera utzi zituztenez, Durangaldearen erorketarako atea zabalik geratu ziren. Askok eztabaidatu da soldadu bikainek euren posizioak bertan behera uzte horren zergati politikoei edo bestelakoei buruz. Beldarrainek adierazi zuenez, badirudi gizon haien artean nabaria zela, baita ere, Elorrioren zeuden agintarien aldetik alde batera utzita, baztertuta, ahaztuta, egotearen sentimendua.

Apirilaren 23an hegazkin legionario italiarrek euren ahalegin guztiak egin zituzten, ia hiru tona bomba jaurtuz Apatamonasterio eta Durango arteko errepidea gainera. Udala mendia Larrañaga batailoiak babesten zuen, eta Memaia Guipúzcoa batailoiak. Goizeko bederatzietarako Memaiaiko behealdeko posizioak galduta zeuden, eta gizonak, handik denbora gutxira erasoak gertatuko ziren tontorretara abiatu ziren. Artilleriak Elorriotik Memaiarantz egiten zuen tiro, erreketearen bidea oztopatzeko asmoz. Eguerdian hasita zegoen jada Udala mendiaren iparraldeko hegala hartzeko ekintza, Santa Luziako baselizaren aldetik. Arratsaldean kainoi errebeldeek Elorrio eta Elgeta arteko errepidea eraso zuten. Vidal koronelak Memaia berreskuratzeko agindua eman zion



Guipúzcoa batailoiar. Gizonak apurtuta zeuden, baina ahalegin bat egin zuten, inolako emaitzarik lortu barik.

Santa Luziako baselizatik, erreketeeek mendian behera egin zuten, Elorrio eta Elgeta arteko errepidea Iguria eta Urkitzuaran parean mozteko, herritik kilometro bakarrera. Mola jeneralak bere kuartel nagusia aipatutako baselizan instalatu zuen eta, bertatik zuzentzen zituen operazioak, García Valiñorekin eta beste ofizialekin batera. Gudariak eta miliziarrek ez zekiten errepidea moztuta zegoenik, eta, ondorioz, ibilgailu eta borrokalari asko erreketeen eskuetan erori ziren errepidean bertan. Santa Luziako baseliza presondegia gisa erabili zuten. Atxilotuetako bat Bilboko N.N. tenientea, Elorrioko sektoreko burua zen Ricardo Gómez komandantearen laguntzailea, izan zen. Tenientea eta autoaren gidaria fusilatu eta haien gorpuak Santa Luziako baselizaren inguruan lurperatu zituzten.

Itxasalde batailoia Arrazolara bidalia izan zen. Atxondoko bailaratik eraso bat planifikatu zen, etsaia Besaideraino atzeratzeko eta berriro ere Memaia eskuratzeko, baina azkenean erasoak ez zen gauzatu. Bonbardaketak eta erasoak etengabeak ziren arren, Beldarrainek bere posizioei eutsi zien Intxortatan eta Larrañaga batailoiak Udalan. Apirilaren 24an hiru batailoiek baterea burutu beharreko kontra-erasoa proiektatu zen, baina hori ere ez zen gauzatu. Intxortatan inguratuta geratzeko arriskua ikusita, Martiartu batailoia, bere posizioak utzi eta Ermurantz

joan zen, Goikomendi eta Heredia mendien artetik, Elgetatik Ermura jaisten den Aitzolerreka errekatik. Atzera egite horiek planak aldarazi zituzten, eta erreketeei Elgeta eskuratzeko agindua eman zitzaizen. Navarra tertzioak eskuratu zuen arratsaldeko laueta, karlisten artean hainbat hildako eragin zituen tiroketa gogorraren ondoren. Elgeta okupatu eta gero zenbait




????????????????????????????



 Elgeta, 1937. Frankoren aldeko soldaduak herria hartu ondoren. *Fototeka Kutxa*.



 Durangaldea Intxortatik ikusita. *Sabino Arana Fundazioa*.



 Elgeta, 1937. *Fototeka Kutxa.*



 Elorrio, 1937. *Sabino Arana Fundazioa.*



Elorrio, 1937.



Elorrio, 1937. Umeak zain frankistek ogia noiz banatuko.



Elgeta, 1937. Soldadu frankistak herria hartu ondoren.



Elgeta, 1937. Soldadu frankistak herria hartu ondoren.



Elorrioko udaletxeko arkupea, 1937. Alfonso Velarde Koronela, Gipuzkoa eta Bizkaiko gobernadore militarra. *Bergarako Udal Artxiboa.*



1937. Elorrioko plaza frankistek menpean hartu ondoren. *Fototeca Kutxa*.

exekuzio burutu zituzten. Bederatzi, Antzuategi Bazterrekoa baserrian, eta beste hiru hurrengo egunetan, Elgetan bertan.

Apirilaren 24an Montejurrako tertzioak Elorrio eskuratu zuen. Erreketeak konfiantzaz beteta hurbildu ziren herrira, baina tiroketa jasan zuten, eta nafarrek herria inguratu behar izan zuten. Herri barrura sartu eta gero, tiroketa errepublikarren

amarrua izan zela konturatu ziren, erretretan edo atzera egitean denbora irabazteko. Ordu batzuk geroago Etxebarriako San Agustinerantz joan ziren, eta frankismoaren gau luzeari hasiera eman zitzaion Elorrión. **a**

Jon Irazabal

Gerediaga Elkartea